



OHAR GARRANTZITSUA-2022-2023 IKASTURTEKO BEKAK

Uztailaren 15ean argitaratu da EHAAn **2022-2023** ikasturterako **unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta diru-laguntzen deialdia**. Eskabideak aurkezteko **epea 2022ko uztailaren 18tik irailaren 30era bitartekoa izango da**, biak barne

Eskabideak egiteko epea laster irekiko denez, honako hau jakinarazten da:

Deialdi honi dagokion informazioa webgune honetan eskuratu ahal izango da:

<https://www.euskadi.eus/unibertsitateaz-kanpoko-bekak/>

2021-2022 ikasturtean beka edo laguntzaren onuradun izan ziren eta matrikula kudeatzeko aplikazioan sartutako irakaskuntzetan matrikulatuta dauden ikasleei jada betetako eskabidea-zirriborroa SMS eta/edo posta elektronikoko bidez eskuratzeko aukera emango zaie.

Eskabidea **telematikoki aurkeztea erabakitzen baduzu**, SMS eta/edo Email bidez emandako Interneteko helbidea erabili ahal izango duzu, eta dagokion ikaslearen jaiotze-data sartu eta “proposamena deskargatu” botoia sakatu. Horrela, eskabidearen zirriborroa lortuko duzu, eta honela aurkez dezakezu:

1. a) zirriborroan emandako kodea (aukera: “Egiaztapen-kodea duen telematikoa”)
2. b) ziurtagiri elektronikoa bat (“telematikoa ziurtagiri elektronikoarekin” aukera)
3. c) Eskabide-orria inprimatu, sinatu eta ikastetxera joanda (“ikastetxean bertan” aukera)

Eskatzaileak **ikastetxean bertan aurkeztea aukeratzen baduzu**, eskabidea sinatu eta ikastetxean entregatu, eta bertan erregistratuko da eta egiaztagiria emango zaio.

IES Soraluze BHI ikastetxea, Frontoi kalea 3, pk 60 20590 Soraluze (Gipuzkoa) 943899261

<https://soraluzebhi.hezkuntza.net>



Egiaztagiri hori gorde egin beharko da, edozein erreklamazio izapidetu behar izanez gero aurkeztu ahal izateko.

Eskabidea paperan ere jaso ahal izango da ikastetxean, aurreko ikasturteetan bezala.

Beka eskabide orria eta deialdiaren inguruko informazioa irailaren 8-an banatuko zaie ikasleei, aurkezpen egunean.

Beka **eskaera presentzialki ikastetxean izapidetzeko** data eta ordutegiak hauek izango direla jakinarazi nahi diegu familiei:

Irailaren 19tik irailaren 30 arte, biak barne, 09:00-13:30 bitartean (Idazkaritzan)

Ez da hitzordua eskatu behar baina eskabide orria ekarri behar da zuzenketak eginda.